

Donostia, 2017ko urtarrilaren 5a

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA, ARGITU PROGRAMA DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Argitu programa dela eta, OSOKO BILKURAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko martxoaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan dauka ARGITU programa, Gipuzkoako etxeetan argindarraren kontsumoa modu erraz eta sinple batean murriztea sustatzeko. Foru Aldundiko Ingurumen Sailak onartu duen bezala, energia noiz eta nola kontsumitzen dugun jakinda, % 10eraino aurreztu dezakegu urteko faktura energetikoa. Programa hori Gipuzkoako etxe guztietara zabalduz gero, posible litzateke lurraldeko bideak eta bidegorriak hiru urtez argizatzea.

Hauxe da programan erabilitako sistema: etxeko argindar kontsumoa neurtzeko gailu digital bat jartzen da, ARGITU programan izena eman dutenen etxebizitzetako kaxa elektrikoan. Neurgailu hori webgune bati lotuta dago; hala, erabiltzaileek beren etxeko kontsumoaren datuak kontsultatu eta alderatu ditzakete, baita kontsumo hori eragiten duten baldintzatzaileak eta beste datu batzuk ere. Hauek dira lortutako emaitzak: argindar kontsumoa % 5,87 murriztea eta 32,65 tona CO2 isurtzea saihestea.

Ekimen pilotu horretan, Gipuzkoako 50 udalerritako 400 familiak hartu dute parte. Ekimenari esker, kontsumitzen duen argindarraren berri izan dute denbora errealean, eta, hala, faktura elektrikoari buruzko informazio asko jaso ahal izan dute. Ondorioz, energia aurrezteko erabakiak hartu ahal izan dituzte familiek.

Programaren bitartez, aurrezteaz gain, izena eman duten pertsonen etxeak eta egoerak aztertzeo aukera egon da. Eta hauxe da lortutako informazioa: fakturaren kostua murrizteko eman dute izena parte hartzaileen % 30ek. Era berean, ikusi dute etxebizitzaren % 92k isolamendu eskasa dutela eta programan izena eman duten familien % 100ek dutela interesa energia berriztagarriak jartzeko.

Energia eraginkortasuna hobetzeko beharraz jabetuta, Donostiako Udalak araudiak onartu ditu, eraikinetako eraginkortasun energetikoari eta ingurumen kalitateari buruzko Ordenantza kasu; eta udal eraikinetan neurriak ezarri ditu. Halaber, badaki herritar batzuek zailtasunak dituztela argindarraren fakturari aurre egiteko. Hori dela eta, 2016ko ekainaren 8an, hitzarmena egin zuen Iberdrolarekin, ez dezaten hornidura elektrikoa moztu arazo ekonomikoen ondorioz faktura ordaindu ezin duten familien etxeetan.

Horiek horrela, MOZIO ARRUNT hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio zabal dezala Argitu programa Donostiako etxe guztietara, baita Gipuzkoa osora ere, energia nabarmen aurrezteko.
2. Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio handitu ditzala udalei zuzendutako diru-laguntzak, eraikinak era efizientean birgaitzeko.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.